

11-14 M. Korifeoko koroentzako irakaspenak

PEDRO ALBITE
EHUKO IRAKASLEA

Pentsalari modérnoek uste dute gerra eta indar erabilera politikaren porrotak eragiten dituela, baina M. Foucault filosofo argiak kontrakoa pentsatzen zuen: politika eta agintea gerraren hedapena baino ez direla beste biarteko batzuk erabiltza.

Gogoeta hori oso indarrean izan da hiru egun mingarri hauetan barrena, hots Madrileko gerra akzio hartatik Espainiako Estatuak hauteskundeetara bitarte. 50 ordu horietan gertatuak, eta gertatuaren ondorioak ez ziren kasualitateak izan. AEBek eta bere aliatu Espainiak erakutsi dituzten autoritarismo eta bidegabekeriaren paradigma dramatikoa baizik. Helburua mundu nagusitan errege izatea lehenarentzat, eta nazio batasunari eustea bigarrenarentzat. Baina hori baino gehiago gertatu zen. Ateratuak amerikar eta espainiarren porrot egindako ziklo horren isla beldurgarria ere izan ziren.

Ordea, beldur eta kezka jositako ia lau egun horietan agerian geratu dena ez da indar euskaldun gehien (baita ezker espainola ere) gaitasun eza bakarrik izan, hori baino gehiago izan da. Beren buruak salbatzea, leku seguruan jartzea eta ahalik eta zuku politikoki gehien ateratzea izan da jokabidea, korifeoko koroak bezala errepikatu dute *intelligentsia* militar eta polizia espainolaren bertsioa erabakitzea eskubide demokratikoa sustuen defenditu duen gizarte sektorearen kontra. Bazekiten, ondo jakin ere, gezur galanta eta ongi moztortuta zela bertsio hura. Gezurra, oraingo honetan, Madrileko 200 pertsona errogabe eta Euskal Herriko bi pertsona errogaberen gainean eraiki zen.

Irtenbidea

JOSE LUIS ALVARE ENPARANTZA,
'TXILLARDEGI'

IDAZLEA

Aste gogorra. Tentsio handikoa. Hitzak ez beti zuzenak. Bego dena bere horretan. Hobe dugu. Aste historiko honen ondoan, zer?

I. Ppa desmoozortuta eta kakaztuta

Francoren nostalgikoek paperak galdu dituzte. Erabat galdu. Eta gurekiko gorrotok ak eraginik, Euskal Herria berrokuputzen saiatu dira.

Oraín arteko erasoak aski izan ez direla ikusita, atzerri aldean errespetua bera arras galdua dutela erreparatzen. Estatu Kolepea ere ematen saiatu dira. Bigarren 23F baten zori-zorian egin gara. Larunbatean bertan agaldu ziren Madril zurrumurruak. Erraza da Almodova-

ETAREN lanak ez zirela jakiteko datu dezente edukita, eta bai, ziur asko, talde armatu islamista batenak, estrategia honi heldu zion Estatuak: ostegun goizeko 11etatik aurrera, gerraren aurka zegoen jende ugaria desaktibatzen saiatu ziren, modu horretan Espainiako ezkerreko indar euskalazale eta katalanistak neutralizatzeke. Eta, azkenik, subiranotasunaren aldeko ezker abertzalea eta sektore errepublikano katalana desegituratzea post-frankismoaren ziklo autonomistaren amaiera planteatzen dutelako, prozesu berri bat defenditzen dutelako, baita ETA erakunde armatuarekin hitz egitea eta negoziatzea ere. Estatuok inteligentzia zerbitzuentzat eta PPrentzat denbora irabaztea zuten kontua, eta horretarako jarri zuten abian makineria mediatiko eta politikoki guztia, eta estrategia horren gainean kudeatu zuten krisia. Patean berriz elkar sakabanatutako indar politikoki zituzten, aurre egiteko benetako gaitasunik gabe. Ez zuten zer galdurik, lortuz gero, ordea, guztia irabazteko.

Estrategia horrek guztiak, baina, izan zituen odolkiak ordainetan. Gerrarako lantza *boomerang* bihurtu zitzairen. Hori ezker abertzaleak eragin zuen. egia eta ausardiarekin abiatuta, atentatu eguneko goizeko 11tan esan baitzuen guztia gezurra zela, bai eragile politikoki euskaldunei eta baita hedabideei ere (estatu mailakoei, nazionalak eta nazioartekoei). 13etan, berriz, gizarte guztiari publikoki. Gezur-tatze hori berretsia egin zuen, aurrekaririk gabeko akzio batean, ostiral arratsean ETA erakundeak. Horrek behartu zuen Espainiako Barne ministroa hitzak neurtera eta abiatutako estrategia zuzentzea. Askoz ageriago gelditu zen hori gobernuko presidentearen lehen agerraldian eta erregearenean ere. Ez dago dudarik, ezker abertzalearen sinesgarritasuna, ez euskal gizartearen aurrean

soilik, baita estatu eta nazioarte mailako agenteen aurrean ere. erabat indartuta ateratu da. Argi geratu da, era berean, ezker abertzaleak aurpegia emanari zor zaiola PPrentzaren estrategia faxistaren gain-behera eta hauteskundeetako porrota.

Ebidentziak ebidentzi, korifeo koroen modura ikusi genituen ostegun hartako 9.30etik aurrera, ederki minduta gainera, nola guztiak hizpide bera hartuta Espainiako Barne Ministerioaren diskurtsoa errepikatu zuten. Ibarretxek, Sarasuak, Erraztik eta Madrazok espainolen estrategiarri jarraipena eman zioten ezker abertzalearen aurka joz eta Estatuaren kontra fronte demokratiko bat sortzeko aukera desaprobatuz. Segititik jarri ziren PPrentz pankartaren atzean. Alderdi interesak eta beldurra zirela medio, nahiago izan zuten sinestu espainolengandik zetorren mezuak, gure gizartearen interesaren mesedetan ezker abertzalearekin herri modura erantzun duin bat prestatzea baino.

Ordu latz horietan esatarien arrosarioa ere jasan behar izan genuen erabat txundituta, baita tertuliano, komunikazioan aditu, soziologo eta politologoena ere... horietako gehienek Espainiako Barne Ministerioaren bertsio orraztua errepikatu zuten objektibitate zientifiko eta inteligentzia analitikoarekin. Salbuespen bakarrekin, Mariano Ferrer. Honek txundiduraz ikusi zuen nola Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak Madrileko bertsioa errepikatzen zuten arratsaldeko 7.00etan. Eta jarraiki galdera egin zuen tristuraz, nire ustez ixten hasi den ziklo honen giltzarria dena: zer egin dugu urte hauetan guztietan PPrentzaren estrategia eta gezurra auzitan ez jartzeko eta sinesteko horrelako testuinguru batean eta horrelako ebidentzien aurrean?

Hargatik nazkatik gertu dagoen zinismoa da bakarren batzuek honetatik guz-

titik ateratu duten ondorio nagusia: Txema Monteroren moduko intelektualek, beste batzuren artean, esan baitzuten bertsio espainola sinestu izana ETAREN degradazioari egotzi behar zaiola. Hiru eguneko gertakari izugarriak aiatu ere egin gabe. Hain sinpleki. Agian jasanezina egiten zaie sinestea euren konkretuki ETAREN kontrakoa arrazoipideak urte hauetan guztietan, eta Ezker Abertzalearen kontra orokorrean (zenbat eta okerrago hobe, eta Estatuarekiko konplementari-tatearena), ez zela egia. Edo are okerrago dena, euren aplikatzea zekiekeela. Izan ere, azken finean, erosoago egiten zaie Estatuarekiko mendekotasunean jarraitzea, tarta zati bat eskaintzen baitie botere instituzionallean, baita hegemonia politikoa ere. Ez dute afontatu nahi euskal gizarteari erabakitzen utziko liokeen prozesu demokratikoa, gatazka behin betiko konpontuko lukeena, eta esparru instituzional propioa ziurtatuko lukeena, beste herriekin berdinik berdineren harremanak izatea bermatuko ligukena, baita hezkuntza sistema propioa, hizkuntza normalizatua, guztientzako giza eskubideak eta subiranotasun ekonomikoa.

Agertoki berri bat daukagu gure aurrean lubakien gaitetik jauzi egin eta ahalginak bateratzeko. Inork ez digu ezer eroparituko. Are gutxiago PSOE ahul bategi, oparitutako garaipen horrekin, eta PP oraindik indartsuak hauteskunde mailan, judizialki eta mediatikoki. Aukera berri bat dugu gure aurrean fronte demokratiko bat osatzeko, eta ahalik eta azkarren bi eginkizun proposatzeko: giza eskubide oinarrikoenak berriro ezartzeko (urratutak baitaude) eta autodeterminazioaren bideari ekitzea gure gizartearen gehiengoak aldarrikatzen duen sufrimintuaren amaiera etor dadin.

Erredakzioan itzulia

rren salaketen artean hisia besterik ez sumatzea. Baina nondik nora Renoko Unibertsitateko erregimenari berri bera hedatzea?

II. ETaz gain, orain Al Kaeda

Behin eta berriz ETA desegina zela aldarrikatu ondoren, Madrileko sarraskia egiteko gaitasuna aitortu dio Aznarrek. Zertan gara bada? Porrota. Iazko manifestazio erraldoiei jaramonik egin ez; eta munduko «hiru handien artean» Aznarrek bere burua ikusirik, irakeko gerran sartu gaitu denok. Hots, alferrik da begiak hestea. Al Kaedaren sarraskiak islamdarren zapalketan eta ustiaketan du oinarria. Porrota.

III. Ajuria Enea bis

Ez da Isaias izan behar PNVak eta PSOEak berriro ere Ajuria Enea moldatzen hasiak direla esateko. Ardanza dator berriro.

Eta, orduan bezala, Ezker Abertzalea bihurtuko du etsai nagusi.

Hortaz, Ibarretxeren Planaz zer? «Hobe beharrez», eta «oraingoz», zokaruta geldituko da. Badantzuzgo bazterrean: «*hay que salvaguardar la gobernabilidad*», eta abar. Kitto. PSOEak argi eta garbi esan du puntu honetatik ez dutela inolara ere amore emango.

Txistu apur bat, «*derechos históricos*» beste apur bat. Eta aurrera.

IV. Auto-Determinazioa

Ezin garbi dago lorkizuna, ene ustez. Auto-Determinazioaren alde gauden guztiok elkartzeko.

Nor elkartzeko, beraz?

PNVarekiko bere murrizketak bukatzeko deliberratuta, EArekin kontaktatu behar da.

Aralar, Nafarroa Bai eta Abertzaleen Batasunarekin ere bai, noski.

Ezker Abertzalearekin kontaktatu behar dela esan beharrik ez dago. (Partiduen Legeari buruzko jokabidean erakutsiko du, hain zuzen, PSOEak bere «beritasuna». Agian!)

Hortxe, noski, ELA eta LAB sindikatu abertzaleek. Eta Auto-Determinazioaren bidetik jotzeko prest dauden indar sozial eta kultureleko oro.

Eta hortxe dute beren lekua, era berean, Zutikere, Batzarrek eta Ezker Batuak. Ez da multzo makala.

Eta Esquerra Republicana de Catalunya eta Bloque Nacionalista Galegoarekin esku esku jotzeko, gero, are gutxiago.

V. Su-etena

Azaltzea balio ez duen anitz arrazoiengatik, orainxe du ETAK menia edo su-etena mugagabea aldarrikatzeko aukera.

Agian bai!